

ASTE BURUTIK AURRERA

Badator eguraldi ona

Oporrak direla-eta eguraldiaz kezkatuta dabiltzanei erantzuna eman nahian, Joxe Landa meteorologoa- rengana jo du EGUNKARIAK. Pozteko moduko berria eman digu, gainera: «Santiago pasatuta hasiko du berotzen; San Ignazioan bero handia izango dugula uste dut, gainera». Are gehiago, larunbatean beroa eta eguraldi «bikaina» izango dugula uste du Landak, bai eta igandean ere.

Hortik aurrera, «abuztuak berea emango du, eta eguraldi onaren fama berreskuratuko du». Hau da, datorren asteburuan hasi eta abuztu osoan, eguraldi ona eta egonkorra izango dugu Euskal Herrian, meteorologoa- ren arabera.

Orain arte izandako eguraldi kaskarra normala ote den ere galdetu diogu Landari. Hona hemen erantzuna: «Nahiz eta ez gustatu, normala da». «Askotan ahaztu egiten zaigula dirudi, baina horrelako uztailak eduki izan ditugu; nahiko genuke Levante aldean bezala egunero eguzkia izatea, baina Euskal Herria ez da horrelakoa», azaldu du.

Egia da, hala ere, uztail aldean egun argiagoak izan eta bero handiagoa egin izan duela eta, gehienetan, abuztuan baino eguraldi hobea egiten duela uztailan, «nahiz abuztuak fama handiagoa duen», azaldu du Landak. Hala ere, «abuztuak bere fama berreskuratuko du aurten». Beraz, uztail pata- laren ondoren, abuztu ederra izango dugu, bere esanetan.

gehienak atzerritarrak izan dira, «urtero bezala»; madrildarrak eta ingelesak, gehienbat.

Donostiako turismo bulego- koek adierazi dutenez, Gipuzkoako hiriburuko kale eta hoteletan ere ez dute antzeman turisten jaitsierarik, eta gehienak beteta daude, uda guztietan bezala. «Baina turismo bulegoan lan gutxiago izan dugu», baieztatu dute.

Atzerritarrek hoteletara erra- zago jotzen dutenez eta opor- rnak lehenagotik prestatzen dituztenez, «etorri arte ez dute jakiten zer eguraldi egiten duen». Halaxe azaldu dute turismo bulegoek eguraldiaren eragina txikia izatea.

Baina Euskal Herri barruko turismo gehiago biltzen duten kanpineren ere ez dute sumatu

Kezka nagusitu da kostaldeko herrietan

Itsaso alboko taberna, terrazetan eta txosnetan, izozki dendetan eta antzekoetan izan dira kalte handienak eguzki ezagatik

A.L. | SOPELA

Hondartzen inguruan lan egiten duten tabernari eta izozki sal- tzaileak hoteletakoak baino ez- korragoak dira, eta haien ikus- puntua bestelakoa da oso. Biz- kaiko kostaldean, Sopela herrian turista ugari bildu ohi dira, eta bertan kexuka aurkitu dugu hainbat, eguraldi kaska- rrak sortutako eragin kaltega- rriengatik eta orain arte izanda- ko galerengatik arduratuta.

Sopelako hondartzan, El Pa- sillo tabernako terrazak hutsik egon dira ia egunero. Bertako langile Beñat eta Iratxeren esa- netan, «asko antzeman da egu- raldi txarra egin duela, hondar- tza ez da bete, eta, noski, gure

taberna ere ez». Hori dela eta, galera handiak izan dituzte orain arte; «galerak baino gehiago, irabazirik ez». Beraz, eguraldi aldaketa lehenbaile- hen etorriko den esperantza dute, «denboraldia irailaren 15ean amaituko baita; egural- dia ez bada laster aldatzen, ez dakit zer egingo dugun», dio Beñatek, kezkatuta.

Euskal Herria eguraldi onare- kin esnatu den hiruzpalau egu- netan ere, ez da espero adinako jendetzarik bildu hondartzara. «Azkenaldian, eguraldi ona ate- ra eta berehala euri zaparrada botatzen du, edo alderantziz. Horrela, jendea ez da ausartzen hondartzara etortzen. Ez badu hiru egun jarraian ona egiten,

zailagoa da animatzea; jendeak nolabaiteko segurtasuna nahi du», Beñaten esanetan.


«Datorren urtean hegoaldera joango dira!»

Larrabasterra hondartza alboan dagoen izozki postuko langilea- ren kezka ez da txikiagoa. «Honek basamortua dirudi; hemendik ez da inor pasatzen», dio, lan ezagatik aspertuta. Egural- dia normalizatuko den esperan- tza galtzen ez duen arren, nahi- ko ezkor dago Sergio: «Hilabete eta erdian irabazi ez duguna ez dugu irabaziko gero». Eguraldi nahasiak, gainera, datozen ur- teotan eraginik sortuko ote duen kezka ere badu Sergiok. Izan ere, «pisu bategatik

400.000 pezeta ordaintzen ba- duzu eta ezin bazara hondartza- ra joan, hegoaldera joatea pen- tsatuko duzu datorren urtean!», kexatu da.

Larrabasterra hondartzako txosnako langile Jon Andoni- ren ustez, «asko nabaritu da eguraldi kaskarra». Gazte ho- rren esanetan, gainera, uztaila da Sopelako hondartza ingu- ruetako postuentzat hilabeterik emankorrena. Bizkaiko hiribu- ruan lan egiten duten askok goi- zean amaitzen du lanaldia uz- tailean; geroz eta gehiagok, gai- nera. Hala, «asko dira arratsaldea pasatzera hondar- tzara etortzen direnak», azaldu du Jon Andonik. Bezero mota hori ere galdu du aurten txos- nak, emankorrena den hilean. Izan ere, horiek kanpora joaten dira abuztuan, tabernariaren esanetan.

Larrabasterrako sorosleek ere lan gutxi izan dute gaur arte. «Hondartza bi egunetan soilik bete da, eta, beraz, ape- nas izan dugu lanik». Hala ere, horiek ez daude kezkatuta horregatik: «Horrela lasaia egoten gara».



JUAN CARLOS RUIZ / ARGAZKI PRESS

ZERBITZUETAN ERAGIN HANDIA. Eguraldi txarrak eragin handia izan du kostaldeko herrietako zerbitzu eta tabernetan. Irudiak Donostiakoak dira

beherakadarik eskarian. Hala adierazi dute bai Donostiako turismo bulegoek eta Zarauz- koek, bai eta Mendexako Endai kanpineren ere. Azken horien esanetan, «kanpina ia bete- ta dago, aurreko urteetan bezala».

Turismoaren beherakadarik ez izateaz gain, Araban, Biz- kaian eta Gipuzkoan gorakada ere izan dela jakinarazi zuen atzo Eustat Estatistika Institu- tuak. Ekaineko datuak azertu- ta, bisitarien kopurua %7-10

bitarte gehitu da, iazko datue- kin alderatuz gero. Hala, Ara- bako, Bizkaiko eta Gipuzkoako hoteletan 136.231 bisitari izan ziren joan den hilean, iaz baino 10.000 gehiago.

Bestalde, landa turismoaren eskaera ere etengabe handitzen ari da, eta, Eustatek jasotako datuen arabera, bertako ego- naldiak %26 gehitu dira; berta- rako sarrerak ere gehitu egin dira, %12. Hazkunderik handie- na Gipuzkoak izan du.

